- Ogasunarekin zorrik ez izatearen ziurtagiria/ Certificado de no tener deudas con Hacienda
- Oinarrizko Errenta edota Gizarte Larrialdiko Laguntzarik jasotzen dutenek laguntza hori jasotzen dutela egiaztatzen duen agiria / Justificante de la percepción de la Renta Básica o de Ayudas de Emergencia Social, si es el caso
- Matrikula ordaindu izanaren egiaztatzea. Barnetegiaren kasuan, ikastorduen matrikulari dagokien kostua baino ez / Justificante del pago de la matrícula. En el caso de Barnetegi, sólo el coste de la matrícula correspondiente a las clases.
- "Ikaslearen ibilbide osoa" agiria (www.habe.euskadi.eus) / Documento "Ikaslearen ibilbide osoa."

ADIERAZTEN DUT / DECLARO:

- 1.- Xede berbera finantzatzeko beste dirulaguntzarik ez dudala eskatu / Que no he solicitado otras subvenciones para la misma finalidad.
- 2.- Xede berbera finantzatzeko HABEri dirulaguntza eskatu diodala / Que he solicitado subvención de HABE para la misma finalidad.
- 3.- Ez dudala Bermeoko Udalarekin ezelako zorrik / Que no tengo ninguna deuda con el Ayuntamiento de Bermeo.
- 4.- Baimena ematen diodala Bermeoko Udalarari Gizarte Segurantzarekin zorrik dudana galdetzeko/ Que autorizo al Ayuntamiento de Bermeo a consultar si tengo deudas con la Seguridad Social

Bermeon, 20.....(e)koaren(e)(a)n
En Bermeo,

Eskatzailearen izenpea / Firma del/de la solicitante

BERMEOKO UDALEKO ALKATE-UDALBURUA / ALCALDESA-PRESIDENTA DEL AYUNTAMIENTO DE BERMEO

16



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80010789800O2A2N0G9F4H8

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑOZA ARRIGAIN-Idazkari akzidentala - 30/07/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 01/08/2024


DOCUMENTO: 20241079448

Fecha: 01/08/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E80010789800O2A2N0G9F4H8



Jakinarazpena gazteleraz jaso nahi dut. Ezer adierazi ezean, udalak erantzuna euskaraz emango dizu.
Quiero que se me notifique en castellano. Si no se indica nada, la respuesta del ayuntamiento se remitirá en euskera.

 <p>STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEO</p>	<p>Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.</p> <p>Kodea: 07E80010789800O2A2N0G9F4H8</p>	<p style="text-align: center;">Sinadurea eta data</p> <p style="text-align: center;">MIREN KARMELE MUÑO A ARRIGAIN-Idazkari akzidentala - 30/07/2024 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 01/08/2024</p>	<p>DOCUMENTO: 20241079448</p> <p>Datea: 01/08/2024 Lekua: Bermeon Erregistro unidaea: Erregistro nagusia</p>
---	--	---	--



5.- 2024KO LOKALBIDE PROGRAMAKO DIRULAGUNTZAREN DEIALDIA ONARTZEA ETA ZABALTZEA.

Xedea

2024ko Lokalbide programako dirulaguntzaren deialdia onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Bermeoko Udalaren ardatz nagusienetarikoa Bermeoko Alde Zaharraren dinamizazioa da eta garapen ekonomikoa bultzatzea da.

Bigarrena: Lokalbide dirulaguntzaren helburua, alde batetik, Alde Zaharra ekintzaileentzako gune erakargarria bihurtzea eta bizitasuna emotea da eta, beste aldetik, jarduera gabeko lokal hutsei bisibildadea emotea.

Hirugarrena: Aurtengo deialdian bi lerro aurreikusten dira Lokalbideko dirulaguntzan: alde batetik, aurreko urteetako alokairuarena, beste aldetik, birgaitze lanak egiteko beste lerro bat.

Laugarrena: 2024ko Lokalbide programako dirulaguntzaren oinarrien aldaketa 2024ko ekainaren 27ko Osoko Bilkurak onartu ditu.

Bosgarrena: 2024ko deialdia exekutatzeko aurreikusita dagoen aurrekontu kreditua guztira 35.700 eurokoa da.

Seigarrena: 2024ko uztailaren 19an, Bermeoko Udaleko kontu-hartzaileak aldeko fiskalizazio txostena egin dau. Fiskalizazio txostenaren konklusioetan hurrengoa aipatzen du: *“Oinarrizko Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2.e) eta 34.5 artikuluen arabera, dirulaguntza baten onuradun izateko eta onartutako laguntza kobratu ahal izateko, zerga-zorrrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen ziurtagiria egon behar da. Legean aipatutako betebeharrak ez ziurtatzeak emakida-erabakiaren deuseztasuna eta ordainketaren deusestagarritasuna sortuko du. Aurkeztutako espedientean ez dira aipatzen ziurtagiri horiek, baina derrigorrezkoak dira”.*

Argudioak

Lehenengoa: 2024ko Lokalbide programako dirulaguntzaren oinarrien aldaketa 2024ko ekainaren 27ko Osoko Bilkurak onartu ondoren, deialdia onartu behar da.



Sinadurea eta data



Bigarrena: Erabakia hartzeko ahalmenari jagokonez, 2024ko martxoaren 24ko 1886 zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen arabera, dirulaguntzak emoteko deialdiak onartzea Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio.

Hirugarrena: Aurtengo Lokalbide dirulaguntzaren jarraipena aurreikusten da Bermeoko Alde zaharraren dinamizazioarekin jarraitzeko.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: 2024ko Lokalbide programako dirulaguntzaren deialdia onartzea.

BIGARRENA: Dirulaguntzen Datu Base Nazionalak eskatutako informazioa jakinaraztea Datu Baseari.

HIRUGARRENA: Idazkaritza Sailari eta Berualari erabaki honen berri ematea.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea

6.- LAMERAKO 2. ZENBAKIDUN KIOSKOAREN EMAKIDA ESLEITZEA

Xedea

Lamerako 2. zenbakidun kioskoaren emakida esleitzea.


Aurrekariak

Lehenengoa: 2024ko apirilaren 23ko Tokiko Gobernu Batzarrak, Lamerako 2. zenbakidun kioskoaren emakida esleitzeko deialdiaren oinarriak onartzea eta deialdia zabaltzea erabaki zuen.

Bigarrena: Iragarkia BAOn argitaratzen da (84. zenbakia), 2024eko maiatzaren 2an.

Hirugarrena: Prozedura gauzatu ondoren, 2024ko ekainaren 5ean kontratazio-mahaiak erabaki zuen, emakida lehenengo sailkatuari hau da, 30.677.013-G NAN zenbakidunari, R.M.F. andreari, esleitzea.

Laugarrena: 30.677.013-G NAN zenbakidunari, R.M.F. andreari agiriak aurkezteko errekerimendua eginda, interesdunak eskatutako agiriak aurkeztu ditu.



Argudioak

Lehenengoa: Emakidaren xede den kioskoa jabari publikoko ondasunak dira, zerbitzu publikoari atxikiak, ekainaren 23ko 1372/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duenaren 4. artikuluekin bat etorritz.

Bigarrena: Proposatutako okupazio-izaera eta -epea kontuan hartuta, jabari publikoko erabilera pribatiboa da, eta, beraz, dagokion emakida eman beharko da, 33/2003 Legearen 86. eta 93. artikuluetan eta 1372/1986 Errege Dekretuaren 78.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Hirugarrena: 33/2003 Legearen 93.1 artikulua ezartzen duenez, jabari publikoko ondasunen gaineko emakidak lehiaketa bidez emango dira. Eta kasu honetan lehiaketa bidez esleitzeko irizpide bakarra zehaztu zen, prezioa hain zuzen, emakidaren ezaugarriak kontutan izanda, emakidaren onurarako baliagarriak izan daitezkeen bestelako irizpiderik ikusten ez zelako eskainitako prezioaz aparte.

Laugarrena: Halaber, baldintza agirien 13. klausulan hurrengoa adierazten da: *“Kontratazio Mahaia proposamenak eskeinitako prezio abantailatsua araberaz zerrendatuko ditu, eta kontratazio organoari eskaintza onuragarriena egin duenaren aldeko proposamena egingo dio”*.

Hori horrela, jasotako bi eskaintzetatik onuragarriena 30.677.013-G NAN zenbakidunarena, R.M.F. andrearena izanda, lehiatzaile horren aldeko esleipena proposatu zuen Kontratazio Mahaia.

Laugarrena: Emakidaren esleipena onartzeko ahalmenari dagokionez, Sektore Publikoen Kontratuak arautzen duen 9/2017 Legearen II. Xedapen Gehigarriaren 9. atalaren arabera, ahalmena alkateari dagokio, oinarrizko aurrekontua ez baita egungo udal aurrekontuko baliabide arrunten % 10 baino handiagoa.

Baina 2024ko apirilaren 24ko 1.886 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, ahalmena Tokiko Gobernu Batzarrarengan delegatu zen.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Lamerako 2. zenbakidun kioskoaren emakida 30.677.013-G NAN zenbakidunari,



R.M.F. andreari, esleitzea.

BIGARRENA: Esleipendunak urtean 3.750,01 euroko kanona/urteko ordaindu beharko du, aurkeztutako eskaintzaren arabera.

HIRUGARRENA: Emakidaren epea 15 urtekoa izango da, sinatzen denetik hasita. Epe hori luzaezina izango da eta, beraz, hura betetakoan, jabari publikoaren erabilera pribatiboa utziko da.

LAUGARRENA: Kontratua agiri bidez formalizatu beharko da, esleipen honen jakinarazpena jaso eta hurrengo 15 egun balioduneko epean. Horretarako, kontratua esleipendunaren eskura ipiniko da.

BOSGARRENA: Esleipen hau eta kontratuaren formalizazioa Bermeoko Udalaren kontratugilearen profilean argitaratzeko agindua ematea Idazkaritza Sailari.

SEIGARRENA: Erabakia Ingurumen Sailera igortzea, jarduera gauzatzeko behar diren baimenen gaineko izapideak egikaritzeko, eta Errenta Sailari ere jakinaraztea, egokiak diren kobrantzak burutu ditzaten.

ZAZPIGARRENA: Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea, erabaki honen aurka dagozkien errekurtsioak adieraziz.

ZORTZIGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea.

7.- UDAL AZOKAKO 21-22 POSTU FINKOEN EMAKIDA BERTAN BEHERA UZTEKO ESKARIA ONARTZEA.

Xedea

Azokako 21-22 postu finkoen emakida bertan behera uztea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2024ko uztailaren 5ean 79.077.339-G NAN zenbakidunak, FJ.M.S. jaunak, udal azokako 21-22 postu finkoen emakida bertan behera uzteko eskaera aurkeztu du (2024/10438 zenbakidun sarrera erregistroa).

Bigarrena: 2024ko uztailaren 16an 79.077.339-G NAN zenbakidunak, FJ.M.S. jaunak, udal



azokako 21-22 postuetako uraren eta argiaren titularidade aldaketa eskaera aurkeztu du (2024/10985 zenbakidun sarrera erregistroa)

Hirugarrena: 2024ko uztailaren 17an Bermeoko Udaleko Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko arkitekto teknikoak aldeko txostena egin du.

Argudioak

Lehenengoa: 2024ko apirilaren 24ko 1886 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez onartutako delegazioen ondorioz, ondarearen emakida espedienteen bajak onartzea, Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio.

Bigarrena: 21-22 postu finkoetako argindarra udalaren izenean jartzea komenigarria ikusten da.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: 2024ko uztailaren 5ean 79.077.339-G NAN zenbakidunak, FJ.M.S. jaunak, udal azokako 21-22 postu finkoen emakida bertan behera uzteko eskaera onartzea, eskatzen duen egunetik.

BIGARRENA: Uraren baja interesdunak berak egitea.

HIRUGARRENA: Argiaren titularidade aldaketa dagokion sailak egitea.

LAUGARRENA: 21-22 postu finkoetako giltzak udalari bueltatzea.

BOSGARRENA: Erabakia interesdunari jakinaraztea.

SEIGARRENA: Zerbitzu Sailari, Errenta Sailari, Erosketa Sailari eta Idazkaritza Sailari erabagiaren barri emotea dagozkion ondorioetarako.

ZAZPIGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabakiaren berri ematea.

8.- BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA BERMEOKO UDALAREN ARTEKO GAZTEDI BUSTURIALDEA LANKIDETZA-HITZARMENA SINATZEA ONARTZEA.

Idazkariak ohartarazi du hitzarmena onartuta egon behar dela sinatu aurretik, eta kasu



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80010789800O2A2N0G9F4H8

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO A ARRIGAIN-Idazkari akzidentala - 30/07/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 01/08/2024

DOCUMENTO: 20241079448

Data: 01/08/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



honetan onarpenaren aurretik sinatu dela.

Xedea

Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bermeoko Udalaren arteko Gaztedi Busturialdea lankidetzahitzarmena sinatzea onartzea, Busturialdean 2024. urterako gazteriaren arloko politika integrala ezarri, bultzatu eta garatzeko.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2011ko abenduaren 14an, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirolen eta Gazteriaren Zuzendaritza Nagusiak eta Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL), 'Gaztedi Bizkaia' Bizkaiko Lurralde Historikoko toki eremuan gazteriaren arloko politika integralak koordinatzeko organo bezala ezarri, sustatu eta garatzeko lankidetzahitzarmena sinatu zuten.

Bigarrena: Proiektu horren barruan, 'Udal Gaztedi' parte-hartzeko udal egitura dago. Egitura horren xedea da gune aholku-emailea izatea, Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrietan gazteriaren arloko politiken inguruko neurriak planifikatu eta garatzeko, udalen eta foru erakundearen arteko esku-hartze integral eta partekatu bat lortzeko.

Hirugarrena: Bermeoko Udalak, 2012ko ekainaren 25ean izandako Osoko Bilkuran, 'Udal Gaztedi'-ra atxikitzea erabaki zuen.

Laugarrena: Bermeoko Udalak, 2017ko maiatzaren 8ko 703. zenbakidun Alkatezaren Dekretuaren bidez eta maiatzaren 29an burututako Osoko Bilkuran berretsita, 'Gaztedi Bizkaia 2020' proiektuaren barruan kokatuta dagoen 'Gaztedi Busturialdea' lankidetzahitzarmena onartzea eta sinatzea erabaki zuen, 2017-2019 aldirako.

Bosgarrena: Bermeoko Udalak, 2020ko uztailaren 7an izandako Tokiko Gobernu Batzarrak 'Gaztedi Busturialdea' lankidetzahitzarmena onartzea eta sinatzea erabaki zuen, 2020. urterako.

Seigarrena: Bermeoko Udalak, 2022ko maiatzaren 24ean izandako Tokiko Gobernu Batzarrak 'Gaztedi Busturialdea' lankidetzahitzarmena onartzea eta sinatzea erabaki zuen, 2022-2023 aldirako.

Zazpigarrena: Bizkaiko Foru Aldundiak, 2024. urterako gazteriaren arloko politika integrala



Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO A ARRIGAIN-Idazkari akzidentala - 30/07/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 01/08/2024

DOCUMENTO: 20241079448

Data: 01/08/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



ezarri, bultzatu eta garatzeko Gaztedi Busturialdea lankidetzaz hitzarmena prestatu du.

Zortzigarrena: Lankidetzaz hitzarmen honen xedea lankidetzarako esparrua ezartzea da Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Ajangiz, Arratzu, Bermeo, Busturia, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Forua, Gauegiz-Arteaga, Gernika-Lumo, Kortezubi, Mendata, Morga, Mundaka, Murueta, Muxika, Nabarniz eta Sukarrietako udalen artean, «GAZTEDI BUSTURIALDEA» proiektua garatzeko eta burutzeko, udalerrri horietako gazteriaren arloko politika integrala ezarri, sustatuz eta garatuz, gazteriaren arloko 'BIZKAIA GAZTEAK' estrategiarekin bat etorriz.

Bederatzigarrena: 2024ko apirilaren 18an, Gazteria teknikariak justifikatze memoria egin du.

Hamargarrena: Gastuak, beharrezko atxekipena dauka (RC 2024/000449).

Hamaikagarrena: 2024ko ekainaren 11an, kontu-hartzaileak fiskalizazio txostena egin du.

Hamabigarrena: 2024ko uztailaren 11an, Idazkaritzako AOTk txosten juridikoa egin du.

Argudioak

Lehenengoa: Lankidetzaz hitzarmen hau ez dago Arlo Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean arauturiko kontratuen artean, izan ere, bere barne hartzen dituzten erakundeen helburua ez da merkatua, eta hitzarmenaren helburua erakundeen arteko koordinazioa bermatzeko lankidetzaz arautzea da.

Bigarrena: Sektore Publikoaren Errejimen Juridikoa arautzen duan 40/2015 Legean hitzarmenei ezarritako baldintzak betetzen dira.

Hirugarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmena alkateari dagokio, Toki Erregimena arautzen duan 7/1985 Oinarri Legearen 21.1. f) eta s) artikuluen arabera, baina 2024ko apirilaren 24ko 1886 zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu Batzarrarengan dago delegatuta.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: 2024. urterako gazte-politika integralak ezarri, bultzatu eta garatzeko Udala Gaztedi Busturialdea lankidetzaz hitzarmena sinatzea onartzea.

BIGARRENA: Idazkaritza Sailari, Ekonomia Sailari eta Kontabilitate Sailari erabakiaren berri



ematea.

HIRUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea.

9.- BERMEOKO UDALA ETA BIZKAIKO FARMAZILARIEN ELKARGO OFIZIALAREN ARTEAN ETXEZ ETXKO LAGUNTZA ETA GIZARTE ZERBITZUAK ARTATUTAKO PERTSONEN MEDIKAZIOAREN ERABILERA HOBETZEKO LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA.

Xedea

Etxez etxeko laguntza zerbitzuak jasotzen duten bezeroen medikazioaren erabilera hobetzeko, Bermeoko Udala eta Bizkaiko Farmazialarien Elkargo Ofiziala lankidetzeta hitzarmena onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Bizkaiko Farmazialarien Elkargo Ofizialekin lankidetzeta hitzarmena sinatu zen.

Bigarrena: Lankidetzeta hitzarmenaren helburua etxez etxeko eta oinarrizko gizarte zerbitzuen bezeroen artean, autonomia pertsonal murriztu dutelako eta medikazioa maneiatu eta kontrolatu zaila izaten delako, zerbitzuen bezeroen sendagaien kontrola hobetzea da.

Argudioak

Lehenengoa: 2023an etxez etxeko zerbitzuaren 28 bezero parte hartu dute programan.

Bigarrena: Programan honen bitartez etxez etxeko eta egoera zaugarrian dauden bezeroen sendagaien kontrola hobetu egin da.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

BAKARRA: Etxez etxeko laguntza zerbitzuak jasotzen duten bezeroen eta oinarrizko gizarte zerbitzuen bezeroen artean medikazioaren erabilera hobetzeko, Bermeoko Udala eta Bizkaiko Farmazialarien Elkargo Ofiziala lankidetzeta hitzarmena sinatzea.

10.- 30.686.966-K NAN ZENBAKIDUN LANGILEAREN LANALDI MURRIZKETA ESKARIA ONARTZEA.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80010789800O2A2N0G9F4H8

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO A ARRIGAIN-Idazkari akzidentala - 30/07/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 01/08/2024

DOCUMENTO: 20241079448

Data: 01/08/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Xedea

Amaren zaintzarako lanaldiaren murrizketa. 30.686.966-K NAN zenbakidun langileak eskatutako lanaldiaren murrizketa onartzea.

Aurrekariak

Bakarra: 2024ko ekainaren 5eko 20248531 zenbakidun sarrera erregistro bidez, 30.686.966-K NAN zenbakidun lan kontratudun langileak honako hau eskatu du:

“Amaren zaintza dela eta murrizketa eskatu nahi nuke. Lanaldiaren hasieran %33koa; bere beharrianetarako (medikuarengana joateko...) ...”

Argudioak

Lehenengoa: Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 37. artikuluko 6. atalean honako hau xedatzen da:

“6. Quien por razones de guarda legal tenga a su cuidado directo algún menor de doce años o una persona con discapacidad que no desempeñe una actividad retribuida tendrá derecho a una reducción de la jornada de trabajo diaria, con la disminución proporcional del salario entre, al menos, un octavo y un máximo de la mitad de la duración de aquella.

Tendrá el mismo derecho quien precise encargarse del cuidado directo del cónyuge o pareja de hecho, o un familiar hasta el segundo grado de consanguinidad y afinidad, incluido el familiar consanguíneo de la pareja de hecho, que por razones de edad, accidente o enfermedad no pueda valer por sí mismo, y que no desempeñe actividad retribuida.”

Bigarrena: Bermeoko udaleko lan kontratudun lan baldintzak arautzen dituen hitzarmenaren 56. artikulua honako hau ezartzen du:

“56. artikulua.- Adin txikikoak edo ezindu fisikoak edo psikikoak zaintzeko lizentzia

1. Hamabi urte baino gutxiago dituen ume bat edo soldatadun jarduerarik egiten ez duen ezindu fisiko edo psikiko bat bere kargura daukan pertsonalak bere lanaldia heren batean edo erdian murrizteko aukera izango du, lanaldiaren hasieran edo amaieran, langile publikoak nahi duen moduan; langilearen ordainsariak zati proportzionalean murriztuko dira, antzinakotasunari dagokiona ere bai. Zortzi urte edo gutxiago dituen ume bat edo soldatadun jarduerarik egiten ez duen ezindu fisiko edo psikiko bat bere kargura



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E80010789800O2A2N0G9F4H8

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO A ARRIGAIN-Idazkari akzidentala - 30/07/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 01/08/2024

DOCUMENTO: 20241079448

Fecha: 01/08/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidea:
Erregistro nagusia



daukanak bere lanaldia gutxienez 1/8 eta gehienez erdian murrizteko aukera izango du, ordainsaria zati proportzionalan murriztuz.

2. Legezko zaintza ez da bateragarria izango murrizten den ordutegiaren barruan egindako soldatepeko beste edozein jarduerarekin.

*3. Behar bezala arrazoitutako salbuespenezko egoera jakin batzuk kenduta, lizentzi hau **hamabi hilabeteko epeetan emango da**; lizentzia emateko arrazoiak asko aldatuz gero, langile publikoak lanaldi murrizketa aldatu ahal izango du eta lanera itzuli baino 15 egun lehenago, Erakundeari horren berri eman beharko dio.”*

Artikulu honetan xedatutakoaren arabera, zaintzarako lizentzia hamabi hilabeteko epeetan ematen da, eta onartutako lizentzia aldatzeko behar bezala arrazoituta egon behar da.

Hirugarrena: Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 37. artikuluko 6. atalean ezarritakoaren arabera, lanaldiaren murrizketa eguneroko lanaldian aplikatu behar da, hau da, eguneko lanaldiaren barnean.

Halaber, Bermeoko udaleko lan kontratudun lan baldintzak arautzen dituen hitzarmenaren 56. artikuluan ere, murrizketa eguneroko lanaldiaren hasieran edo amaieran aplikatu behar dela adierazten da.

Lan-merkatuaren erreformarako premiatasunezko neurriei buruzko 3/2012 Legearen Lehenengo xedapen gehigarriko 2. atalean xedatzen du:

*“5. Quien por razones de guarda legal tenga a su cuidado directo algun menor de ocho años o una persona con discapacidad que física, psíquica o sensorial, que no desempeñe una actividad retribuida, tendrá derecho a una reducción de la **jornada de trabajo diaria** , con la disminución proporcional del salario, entre, al menos un octavo y un máximo de la mitad de la duración de aquella...”*

Laugarrena: Lan-merkatuaren erreformarako premiatasunezko neurriei buruzko 3/2012 Legearen Lehenengo azken xedapenaren 2. eta 3. ataletan xedatzen da:

“2. El primer párrafo del apartado 5 del artículo 37 del Texto Refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, aprobado por Real Decreto Legislativo 1/1995, de 24 de marzo, queda redactado del siguiente modo:

5. Quien por razones de guarda legal tenga a su cuidado directo algún menor de ocho años o una persona con discapacidad física, psíquica o sensorial, que no desempeñe una actividad retribuida,



tendrá derecho a **una reducción de la jornada de trabajo diaria**, con la disminución proporcional del salario entre, al menos, un octavo y un máximo de la mitad de la duración de aquélla.

3. El apartado 6 del artículo 37 del Texto Refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, aprobado por Real Decreto Legislativo 1/1995, de 24 de marzo, queda redactado como sigue:

6. La concreción horaria y la determinación del período de disfrute del permiso de lactancia y de la reducción de jornada, previstos en los apartados 4 y 5 de este artículo, corresponderán al trabajador, dentro de su jornada ordinaria....”

30.686.966-K NAN zenbakidun administrari laguntzaileak eskatutako lanaldiaren murrizketa egunerokoa da eta bere aplikazioa lanaldiaren hasieran eskatu du.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 37. artikuluko 6. atalean eta Bermeoko Udaleko lan kontratudun lan baldintzak arautzen dituen hitzarmeneko 56. artikuluan ezarritakoaren arabera 30.686.966-K NAN zenbakidun administrari laguntzaileak eskatutako lanaldi murrizketa lanaldiaren hasieran onartzea.

BIGARRENA: Bermeoko Udaleko lan kontratudun lan baldintzak arautzen dituen hitzarmeneko 56. artikuluan ezarritakoaren arabera, 30.686.966-K NAN zenbakidun langileak bere eguneroko lanaldian eskatutako murrizketa onartzea, erabaki hau onartu eta hurrengo egunetik aurrera. Murrizketa hori lanaldiaren hasieran aplikatuko da, betiere zerbitzuaren ordutegi-mugen barne.

HIRUGARRENA: 30.686.966-K NAN zenbakidun langilea lanaldi murrizketa egoeran dagoen bitartean bere ordainsariak zati proportzionalean murriztuko dira, antzinakotasunari dagokiona ere bai. Halaber, hileroko kotizazioak bat etorriko dira murriztutako ordainsariekin.

11.- 62/2024 EPAIAZ BERRI EMATEA.

Tokiko Gobernu Batzarrari, irmoa den 62/2024 Epaiaren berri eman zaio, eta honela dio:

“FALLO: Se desestima el presente recurso, se confirma la legalidad de la resolución recurrida, Decreto de Alcaldia de Bermeo 2022/4609, sin imposición de costas a ninguna de las partes.



Esta sentencia es FIRME y NO cabe contra ella RECURSO ordinario alguno. Conforme dispone el artículo 104 de la LJCA, en el plazo de DIEZ DÍAS, remítase oficio a la Administración demandada, al que se acompañará el expediente administrativo así como el testimonio de esta sentencia, y en el que se le hará saber que, en el plazo de DIEZ DÍAS, deberá acusar recibo de dicha documentación; recibido éste, archívense las actuaciones.”

12.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.

Ez da ezer adierazi.

13.- ESKARI ETA ITAUNAK

Endika Etxebarriak Erriberako kantinaren esleipendunak egindako eskariaren berri eman du.

Alkateak animalien inguruko dirulaguntzaren egoerari buruzko informazioa eman du.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitaturako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidatutakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.

Orrri oinean sinatzaileak eta datak



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80010789800O2A2N0G9F4H8

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO A ARRIGAIN-Idazkari akzidentala - 30/07/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 01/08/2024

DOCUMENTO: 20241079448

Data: 01/08/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

